

Astekaria

BARREN

elgoi

Irakaskuntza ertaina bateginez



LIBURUTAREN EGUNA

Ostirala 22,

larunbata 23

eta astelehena 25



Liburu bat erosiz
gero, beste bat
oparituko dizugu !

ostarku



**ESKA EZAZU ORDUA
ZURE JAUNARTZE
ARGAZKIETARAKO.**

**Bizitza guztirako oroigarria
izango duzu.**

Santa Ana, 5 - Tel. 74 06 46 - ELGOIBAR

LAGUN MOBIL


Garrocerías



**Zure kotxearen
zerbitzura**

Olaso poligonoa
Tel. 74 44 30
Faxa 74 44 36
20870 ELGOIBAR

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldeg

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso

Jasone Osoro

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldeg, Itziar

Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,

Myriam Aldazabal, Isabel Ansoa,

Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello

Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara

Burgaina, Urzi Etxabe, Asier

Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix

Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez

Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose

Mari Galdos, Ina Garagarza,

Gotzon Garate, Amaia Gorostiza,

Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz

Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga,

Imanol Larrañaga, Haritz Leon,

Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya,

Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez,

Eduardo Sanz, Jose Inazio Sarasua,

Oihana Tarragual, Alain Ulazia,

Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana

Vila, Miryam Villasante, Alaitz

Vives, Aitor Zabaleta, Yulen

Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Herria eta hiria

Herria ala hiria? Aukeraketa zaila. Lehengoan lagun batek egin zidan galdera darabilt buruan azken egunotan.

Herria eta hiria erantzungo nuke. Bat bakarrik aukera dezakedala? Ez dakit...

Pentsatzen hasita, beti eman didate pena piska bat hirietako umeek. Txorizo ogitartekoa hartu, kalera atera, atxutxiamaikan jolastu (oraindik existitzen al da jokoa?) edo beste mila gauza egiteko aukerarik ez daukate. Etxe aurrean ordubetea mila kotxe pasatzen diren horietako errepidea izanda, telebista aurrean gelditzen dira. Herrietan, berriz, sanoago hazten direla uste dut. Ala hau ere aldatu egin al da?

Urteetan gora egin ahala, berriz, gazteek askoz aukera gehiago dituzte hirietan, teoriar behintzat. Giro ezberdinak kilometro askorik egin gabe, zineman pelikula ugari ikusteko aukera, antzerkia, erakusketak, kolore eta mota ezberdinetako elkarte eta taldeak...

Betiko kontuak dira, askotan aipatzen diren topiko tipikoak, hirietako kutsadura eta herrietako lasaitasuna bezala. Baina eztabaida honetan gauzak ez dira zuri edo beltz.

Egia esateko, denboraldi bat herrikan kanpo pasatzen dudanean itzultzean eskertzen dut aurpegi ezagunak ikustea. Dena den, asko gustatzen zait kalean bakarrik ibiltzea eta guztia eskaparate batean bezala ikustea, ni kanpoan egongo banintz bezala. Jende andana ibiltzen da horrela hirietan, kaleetan, tabernetan, jatetxeetan eguneko menua jaten. Tortilari beste buelta bat emanaz, esango nuke hirian "txingurri sindromea" izateko arriskua ere badagoela, espaloietan beste ehundaka pertsonakin batera ibiltzeak, jende errekan tanta bat izateak sortutakoa.

Baina alferrik da burua nekatzea. Bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu eta hala onartu beharra dago; galderak ez du erantzun garbirik. Nik, behintzat, ez daukat batere argi. Gainera, uste dut hobe dela erantzun bat ez ematea, badaezpada. Hor dago nere amama, Altxolakoa bera, gaztetan sekula santan ez zela Elgoibarrera bizitzera etorriko esaten zuena. Dagoeneko berrogeita hamar urtetik gora daramatza bertan.

Montse Arregi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

8. mailako lau gaztetxok galdera hau egiteko eskatu digute:

• **Zergatik ez dituzte udal aretoko zine emanaldiak arratsaldeko 5etan ere jartzen?**

- Ongarrikoekin egon gara eta ondorengo erantzuna eman digute: haseran 5etan ere jartzen omen zuten eta haur dexente joaten omen zen. Gero, haur kopurua jeisten joan zen eta saioren batean bi lagun bakarrik egon omen ziren. Bukatzeko, umeentzako pelikulen eskaintza eskasa dela aitortu digute.



KEXAK

Irakurle batek Mintxetako aparlekuetan dauden lorategietatik lorak kentzen dituztenak salatu nahi ditu. Berak esan digunez, dauden lorarik politenak lurretik atera eta etxera eramaten dituen jende lotsagabea ba omen dago Elgoibarren. Etxean hobeto zainduko al dituzte behintzat!



TXALOAK

Intsumiso baten amak deitu digu intsumiso elgoibartar guztiak txalotu eta animoak emateko intentzioarekin. Halaber, EAJ, HB eta EA ere txalotu nahi ditu Talde Antimilitaristarekin batera intsumisoen aldeko mozioa onartzeagatik.

ESKUTITZAK

Araceli Casadoren familiak herriari

Barajas aireportuan joan den apirilaren 3an izandako gertaerei buruz, non zenbait lagun atxilotu baitzituzten, Araceli Casado Rebolloren familiak iritzi publikoari honako puntu hauek argitu nahi dizkio:

1.- Familia da gertaturikoaz lehenengo harritu, sofritu eta mindu dena. Gertatutakoa jakin bezain laster joan zen Madrilera haien berri jakiteko. Sentimendu berdinarekin dago Araceli bera, engainu baten biktimatzat jotzen baitu bere burua. Asko sentitzen du gertatutakoa, bere buruari dakartzkion kalteengatik, eta egia azaldu bitartean, bere familiaren inguru sozialari ekar diezaiokeen minagatik; familiak, bestalde, Araceliren errugabetasunean sinisten du.

2.- Gertaerak modu honetan izan ziren: Araceli, Aste Santuko oporretan joan zen lagun batekin martxoaren 27an. Itzultzean, apirilak 3, Barajas airportuan, aduanen kontrola igaro zuen. Kanpoan zegoenean, polizia sustantzia toxikoak aurkitu zituen haren lagunaren ekipaian, berehalaxe atxilotuz.

Araceli ere berarekin zegoelako eutsi zuten eta epailearen aurreko adierazpen guztietan errugabea dela errepikatu du. Orain dena argitzea nahi du, eta, berak deitzen dion bezala, "amesgaitzik txarrena" amaitzea.

3.- Araceli ez dago gaurregun prozesatuta Madrilgo 14. instrukzio epaitegiaren titularrak, Carlos del Vallek dagoeneko ezagutzen dituen gertaera hauengatik. Kargurik ere ez dago Araceliren aurka. Momentuz, aipaturiko gertaerei buruzko ikerketen menpe dago.

4.- Araceliren familiak honen errugabetasuna espero du. Era berean, dena ongi amaitzea nahi luke. Baina, nolana ere, publikoki adierazi nahi du, Araceliren gizalagezko ibilbide sozial garbi eta akreditatuarekin jarraituz, zalantza izpirik bateregabe, justiziak azkenik errudun dela frogatuko balu, familia bera izango litzatekeela ezarriko liokeen zigorrarekin bat etorriko litzatekeen lehena. Inolaz ere, ezin dute gertaera triste hauek Araceliren eta bere familiaren izen ona zikindu.

Araceli Casadoren familia

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





AZKUE

Aste honetako erretratua Ina Garagartzak lagatakoa da. 1968. urtean Uribe etxeke jardinetan atera zuten argazkia. Non zegoen lorategi hau? udaletxe atzean dauden etxeak berriak dira, eta lehen uribetarren etxea zegoen bere jardín eta guzti. Gainera, urte askotan Biar-Dana soziedadea ere bertan egon zen. Erretratuan azaltzen direnak soziedadian “kinto” bazkariren bat egiteko elkartutakoak direla esan digu Inak.

Zeintzuk diren? Tente, ezkerretik hasita:

Kanpotarra, Domingo Badiola (†), Jose Gara-

gartza, ezezaguna, Daniel (Mendaroko “jefea”), Aranberri “Gorriñaga”, ezezaguna, Aizpizkar eta Arrizabalaga “Armueta”.

Jarrita: Ezezaguna, “Artañola”, Mardaras, Muguruza, Obdulio Fernandez “Patati” (†), Txomin Osoro “Katxo”, Domingo Garagartza soinu-jolea, Ziarda eta ezezaguna.

Makurtuta: Esteban Larrañaga, Usatorre, Pedro Urkiri (†), Juan Mari Olaso, ezezaguna, Juanito “Leñador”, Juan Artetxe “Andikano”(†), eta Lizarralde “Agarre”.



BATAIO
ETA
JAUNARTZE
JANTZIETAN
ESPEZIALISTAK

Errosario 21, ☎ 74 17 15 ELGOIBAR

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

Landu ezazu!

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...

ERAGINDAKO RONKERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARTE

KANTU IRAKASLEA

DEITU ☎ 74 15 56 - 11 03 51

Mekanika eta Institutua bateratze bidean

Elgoibarko irakaskuntza ertaineko bi zentruak, Batxilergo Institutua eta Lanbide Heziketa Institutua, zentru bakarra bihurtzeko bidean daude. Aspalditik elkar lanean diharduten arren, legeak orain eman die hezkuntz proiektu osoa batera

egiteko aukera. Bateratzearen ondorioz, 1000tik gora ikasle eta 86 irakasle izango dituen hezkuntza ertaineko zentrua sortuko da. Euskara, kalitatea eta aniztasuna zutabe dituen ikastetxea lortu nahi dute.

Lanbide Heziketa Institutua eta Batxilergo Institutua urteetan zehar dabilta elkar lanean: orientazio sail edo psikologo bakarra dute bi eskolek aspalditik eta joan zen urtean Heziketa Proiektua egiteko eska-bidea batera egin zuten. Eskolen barne araudia, ikastaroak, zine emanaldiak eta beste hamaika ekimen modu bateratuan burutu dituzte.

Bi eskolak batzeko arrazioen artean, bi aipatu dituzte, Anjel Ugarte-buru Institutuko zuzendariak eta Carlos Ansola Lanbide Heziketako zuzendariak. Batetik, hezkuntz sistema zaharrarekin ikasleari aukerari ematen zitzaion eskaintza oso murrizta zela ikusi zuten. Izan ere, zenbait ikasgaitan (grekoa, geologia...) oso jende gutxi apuntatzen zen eta beraz, ezin zen ganorazko talderik osatu. Bi eskolen ikaslegoa biltzean taldeak handitu eta eskaintza bera ere zabaltzeko aukera zutela



■ ■ Carlos Ansola eta Angel Ugarte-buru, Mekanika eta Institutuko zuzendariak.

ikusi zuten. Bestetik, LOGSE erreformaren izpiritu aldetik ere, bateratzearen urratsa eman beharrekoa zela, lehen bait lehen eman beharrekoa gainera, ohartu ziren.

Zer da LOGSE?

Izan ere, gaurregungo hezkuntza 1970. urteko legean oinarritzen da. Honen arabera, Oinarritzeko Heziketa Orokorra 14 urtera arte luzatzen da.

Adin honekin ikasleak aukeratu beharra zeukan: Lanbide Heziketa ala Batxilergo ikasketak. Adin horretan aukera bat egitea goizegi zela eta hezkuntz sistemak gaurkotu beharra zeukala ikusita, erreforma planteatu zen. Erreformaren arabera 16 urtera arte luzatuko da derrigorrezko eskolatzea eta, adin horretan, lau batxilergo eskainiko zaizkio ikasleari: artistikoa (Elgoibarren ez da


egongo), natur eta osasun zientzia, humanitate eta gizarte zientzia eta teknologikoa. Horrela, ikasleak bere gogoko ibilbidea egin dezake, komeni zaion batxilergo mota hautatuz. Batxilergo mota bakoitzak baditu denentzat berdin diren 5 gai, eta horiez gain 3 gai, bakoitzak aukeratzen duen batxilergomotari dagozkionak eta beste 2 hautazkoak.

LOGSE batxilerra eta gero, zer?

Behin ikasleak batxilergo berria burutu eta gero, bi bide ezberdin izango ditu aukeran: orain arte gehienek aukeratutako bidea: hau da, irteera profesional bezala jadanik nahiko agortuta dagoen unibertsitatearen bidea, ala formazio zikloen bidea. LOGSE batxilergo burutu eta gero, (18 urterekin) ikasleak goi mailako ziklo formatiboak burutzeko aukera dauka (administraritza eta merkatal ikasketak, automozioa, makina erreminta...). Gainontzean Unibertsitatera joatea erabaki lezake ikasleak edota aukera izango balu, lan mundura. LOGSE batxilergo egin nahiko ez balu, berriz, derrigorrezko hezkuntza bukatzean (16 urterekin) erdi mailako zikloa egiteko aukera izango du.

Nola geratuko da irakaslegoa eta zuzendaritza?

Hurbiltasun geografikoari esker, orain arte Lanbide Heziketan klaseak eman dituen irakasleak Institutuan eman ahal izango ditu aurrerantzean eta alderantziz. Irakaslegoa mugikorra



■ ■ Datorren ikasturtean LOGSE Batxilerraren lehen maila emango da ikastetxe bateratuan.

izango da, ikasleak zentru batetik bestera ez ibiltzeko modurik egokiena delakoan. Irakasle plazadunak, 40 inguru

eta denak inguruan bizi direnak izango dira, LOGSEri dagozkien kurtsoen arduradunak. Horrela lan serio eta

iraunkorra egitea ziurtatzen dela esan digute bi ikastetxeetako zuzendariak. Bi kurtso barru zuzendaritza bakarra egongo da.

Ikaslegoari dagokionean, maiatzetik aurrera 2. BBB eta 2. REMeko ikasle bakoitzari orientazio pertsonalizatua emango zaio LOGSE batxilerra ezarri eta gero izango dituen aukera ezberdinez informazioa emateko.

Nola izango 94-95 ikasturtea Institutuan eta Mekan?

Datorren, 94-95, ikasturtean LOGSE batxilerrari dagokion lehen ikasturtea emango du Mekanika eta Institutu bateratuak. 16 urtera arteko derrigorrezko hezkuntza (ESO deiturikoa) inplantatu aurretik hasiko da LOGSE batxilerra ematen. Izan ere, 16 urte arteko derrigorrezko hezkuntza ez da ziurrenik 96-97 ikasturtera arte inplantatuko. Elgoibarko bi ikastetxeak aurreratu egingo dira LOGSE batxilerrak eskaintzen. Zergatik? Gaurregun legeak lagatzen duelako eta bi ikastetxeak elkartuz, eskaintza zabalagoa izango delako.

ESO edo 16 urtera arteko hezkuntza ezarri arte plan zaharra mantenduko da 14tik 16 urte bitartean. Hau da, BBB eta REMeko lehen bi mailak bere horretan geratuko dira, eta 3. BBBaren eta FP2, BAG eta BTIko lehen ikasturtearen ordez LOGSE batxilerraren lehen urtea emango da. Hurrengo ikasturtean, hau da, 95-96an, UB, BAG II eta BTI II desagertu egingo dira eta hauen ordez LOGSE batxilerraren bigarren urtea eskainiko da.

Zein helburu ditu ikastetxe bateratuak?

Kalitatezko hezkuntza eskaintzea. Anitz izatea, ikasleari irtenbide ezberdinak eskainiz. Euskara zutabe izango du baina gaztelania baztertu gabe eta azpiegitura eta pertsonal aldetik herriak merezi duen eskaintza zabalagoa emango duena.

Fotero

OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Andoni Tellabide S.L.

ITURGINTZA

- Berogailuak • Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

Azpilgoeta 19.
☎ 75 50 62 MENDARO

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

UDA BERRI
ELGOIBAR

ASTE HONETAN

Zeri begiratzten diozu pertsona bat ezagutzen duzunean?


Gertatu izan zait kalean pertsona bat ezagutu edota autobus batean norbaitengan fijatu eta bere bizitza eta pertsona bera nolako den asmatu nahian, "jolasten" ibili izatea. Baita beste adiskide batekin jolas hau konpartitu izana ere; eta oso ondo pasatu gainera! Ez dut ezer txarrik ikusten honetan, beti ere pertsona hori moletatzten ez dugun bitartean. Baina jolas hau arriskutsu bihur daiteke ezagutuz goazen ezezagun guztiekin aplikatzen badugu. Azkenen, gure buru barnean pertsona eredu ezberdinen artxibo bat sor dezakegu eta horren arabera sailkatu jendea, gizabanako bakoitzari bere etiketatxoa jarritz.

Herri mailan, herrikide bat ezagutu aurretik askotan izaten dugu gure artxibo partikular horretan non-bait kokaturik, etiketa eta guzti. Honelako sailkapenak egiteko aurriritzi ugari hartzen ditugu kontutan: bere familia (abizenak barne), ideologia politikoa, kuadrila, janzkera, kontu korronea, joera sexualak,

"kastellanua" ala euskalduna den, etb.

Honela, sarritan, herrikide bat ezagutzean aurriritzi hauek pisu handiegia izan ohi dute pertsona den bezala ezagutzeko eta erlazio ireki eta sano bat aurrera eraman ahal izateko.

Dударик gabe, askoz ere gehiago maite dut izenburuko galderari lagun batek emandako erantzun zintzoa: "ipurdixari, zuk ez ala?"



ALEX SASIAIN



Mutua General de Seguros

GAIXOTASUN ASEGURUA

- INTERBENTZIO KIRURGIKOA
- HOPITALIZAZIOA

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99



Lehenengo Jaunartzeak

- TARTA BEREZIAK
- ENKARGUAK HARTZEN DITUGU

San Frantzisko, 49 behea. ☎ 74 28 75 ELGOIBAR

Zeri begiratzen diozu pertsona bat ezagutzen duzunean?



PATXI ARANBERRI

28 urte, informatikoa

Neska darian arpeixari beti, begixeri. Matxista ez naiz baina normala da. Mutila bada, jatorra dan edo nola dan bere pertsonalidadia.



J. ANTONIO PALOMINO

44 urte, komertziala

Eskuei. Beti. Kuriosoa bada ere, eskuetara begiratuz pertsona ezagutu dezakedala uste dut. Gero errepasu orokorra ematen diot, noski.



IDOIA ASTIGARRAGA

24 urte, langabetua

Lelengo, nahi ala nahi ez, fisikoari. Gero, ezagutzen dozunian, barruko izakeriari. Gero, garrantzi gehixao barrukuari eta gutxiago kanpoari.



JOSE LUIS ALONSO

37 urte, torneroa

Batez ere, izateko erari. Fisikoa ere garrantzitsua da baina nik nahiago dut izakera majo bat itxuraz ederra ez izan arren, alderantziz baino.



LEIRE DIEGUEZ

13 urte, ikaslea

Mutila edo neskia bada majua eta sinpatikua dan ala ez. Fisikoari ez diot begiratzen. Garrantzi gehixao ematen diot pertsonalidadeari.



MARIA PAREJA

60 urte, etxeoandrea

Normalean fisikoari, ea guapoa den. Danori gustatzen zaigu ondo egotea. Gainera, jatorra izateaz gain guapoa bada hobe, ez?

KEMEN  Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Jose Ignacio Ullacia Echeverria

ARozTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68

■ Buztin ikastaroa

Hilaren 25etik maiatzaren 19ra arte, buztin ikastaroa burutuko da Lurki arte lantegiaren eskutik. Klaseak astelehenetik ostegunera bitartean izango dira arratsaldeko 6etatik 9ak arte. Ikastaro honetan buztina lantzeko oinarrizko teknikak irakatsiko dira. Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko Lurkiren lokalera zuzendu (Aita Agirre, behea).

■ Gurasoen topaketak

Udaleko Drogomenpekotasunen zerbitzuaren eskutik, OHOk 3., 4. eta 5. mailako ikasleen gurasoen arteko topaketa antolatu da hilaren 27rako, asteazkena. Ekitaldia Kultur Etxean izango da arratsaldeko 6,30etan, eta sarrera dohainikoa izango da. Gurasoek psikologo baten aholkularitza izango dute eta asmoa, seme-alabak drogen prebentzioan hezitzeko irizpideak irakastea da.

■ Kontzertuak asteburuan

Astebukaera honetan bi musika kontzertu izango ditugu. Bat, larunbatean, hilak 23, gaueko 10etan, parrokiaren Oartzungo Lartaun abesbatzaren kontzertua izango da. A. Mendizabalen zuzendaritzapean 14 abesti herrikoi eskainiko dituzte. Igandean, hilak 24, Udal Musika Bandak kalejira eta ondoren kontzertua eskainiko du. Goizeko 10,30etan Emon-Emon martxa joko dute, eta 12,30etan Ikastolan kontzertua eskainiko dute. Laster Herriko Antzokian emango dituzte kontzertuak.

■ Diapositiba emanaldia

Datorren 28rako, osteguna, Gipuzkoako ruta ezberdinei buruzko diapositiba emanaldia antolatu du Morkaiko Mendizale Elkarteak. "Bidaia ezezagun bat" izenburupean Luis I. Gonzalezek askorentzat ezezaguna den Gipuzkoa erakusten du. Emanaldia Kultur Etxean izango da arratsaldeko 7,30etan.



ALLICA

Odol Emaileen Elkarteko zilarrezko garaikurra jaso zuten elgoibartar hauek joan den igandean Deban burutu zen Gipuzkoa mailako asanbladan. Guztira 23 elgoibartarrek, guztiak gizonezkoak, jaso zuten zilarrezko garaikurra 25 alditan odola eman izanagatik. Argazkikoak, ezkerretik hasita eta tente, hauexek dira: Sabin Zabaleta, Juan Manuel Mekolalde, Jesus Mari Izagirre, Ramon Maiztegi, Asensio Uranga, Karmelo Loiola, Angel Garcia, Francisco Javier Peñalba, Jose Antonio Arano, Angel Yudego, Juan Cruz Gabilondo, Lucio Beitia, Jon Ander Plazaola, Justino Badiola, Modesto Larrañaga eta Luis Arrieta. Makurtuta, Jose Maria Oñederra, Jose Garcia Fraguas, Fermin Arrese, Jose Luis Arrese, Pedro Maria Prieto, Angel Albizu, Vicente Irazabal eta Julian Etxeberria.

HBk proposamen berri bat kaleratu du San Migel errekaostari buruz

Pasa den astean, Herri Batasunak San Migel errekaostaren proiektuari buruz hiru puntu nagusi aipatu zituen mahainguruan:

1.- Uholde arriskua Zeleta baserritik behera luzatzen da. Horregatik, Metalkuako urtegia ez da nahikoa. Zeleta baserritik beherako arroan enborrak geratzeko arriskua berdin-berdin mantentzen da. HBren ustez, Zeleta baserritik beherako ubidea garbitu eta egokitu behar da, behar bezalako zabalera emanaz.

Estaldura berria proiektuan agertzen den bezala mantentzearen aldekoak diren arren, zaharra ere garbitu eta aprobezagarri egitea proposatzen dute. Horrela, San

Migel errekaostak bi ubide izango lituzke Deba ibaira bitartean: bata Metalkua baserritik behera eskuin aldean eta bestea zaharra, ezker aldean. Ura errazago eta arinago joango litzateke eta uholde arriskua ere asko murriztuko.

2.- Proiektuan Santa Klaran etxe berriak eraikitzen ari den promotorak ez du dirurik jarri behar eta, gainera, irabazten ateratzen da. Izan ere, errekaostaren ubide zaharra kentzean, eraikitzeke lur eremu zabalagoa geratzen zaio.

3.- Proiektua diru publikoaz ordainduko den arren eta konstruktorearentzat onuragarria izanik, Santa Klarako etxe berriak ez direla merketuko salatu zuen HBk.

Intsumisoen

epaiketak direla eta, Talde Antimilitaristak hainbat ekintza burutu ditu joan den aste bukaeran eta joan berri den aste honetan. Argazkiko pankartaren kolokazioa izan zen horietako bat. Bi eskalatzailek azoka plazako goiko aldetik, soldaduzkaren aurka eta intsumisioaren aldeko esaldi esanguratsua zuen pankarta iseki zuten. Joan den larunbatean, Maalako parkea izan zen Talde Antimilitaristaren ekintzen gune. Eguerdia aldetik sagardo eta txorizo pintxoaz lagunduta hasi ziren antolatutako ekitaldiak,

eta arratsaldean intsumisioaren aldeko manifestazioa burutu zuten. Ekintzei buruz, Talde Antimilitaristak poztasuna adierazi du eta eskerrak eman nahi dizkie parte hartu zuten kolektibo zein gizabanakoei. Halaber, Iban Esnaola eta Aitor Esnaolaren epaiketara joandako pertsona kopurua 130 ingurukoa izan zela azaldu dute. Aitorrek ez zuen epailea eta tribunala errekonozitu eta Ibanek bere burua defendatu zuen. Aitorren jokabidea intsumisioaren artean joera nagusi bihurtuko da aurrerantzean, helburua epaitu guztiei zigor berdinak jartzea delarik.



ADORE herri ekimenaren aurkezpena izan zen Kultur Etxean joan den asteazkenean, hilak 20. ADORERen izenean Amaia Martinezek eta Ander Mujika abokatuak hitz egin zuten. Amaia Martinezek ADORER zer den azaldu zien ekitaldira hurbildu ziren 30 inguru lagunei eta Ander Mujika abokatuak Donostiako Auzitegian jarritako kereilaren berri eman zien. ADORER duela urtebete sortu zen drogoenpeketasunei aurre egiteko. Taldearen fundamentuak hiru dira: droga trafikoa sareen eta bertatik irabaziak ateratzen dutenen salaketa, bertatik sortzen den diru zuriketaren ikerketa eta drogen auziaren normalizaziorako bideak urratzea.

■ Filatelia elkartearen txangoa Bilbora

Elgoibarko Filatelia elkarteak eta Eibarko Arratek, urteroko txangoa egingo dute igande honetan, hilak 24, Bilboko Plaza Nuevan izaten den filatelia, numismatika eta txanponen merkatura. Irteera, goizeko 10etan izango da Maalan, eta 10,15etan Eibarko Untzaga plazan. Bilbotik itzulera eguerdirako egiteko asmoa dute. Txangora joan nahi duten guztiek Filatelia elkarteko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, txangoa dohainekoa baita.

■ Dina Bilbaoren hitzaldia Kultur Etxean

Dina Bilbao, triatlhoilari ezaguna, Kultur Etxean izango da datorren asteazkenean, hilak 27, emakumea eta kirolari buruz hitz egiteko. Urgazi triathloi taldeak antolatutako saioan, hitzaldiaz gain, Dinak diapositibak emango ditu. Hitzaldia 8etan hasiko da. Hilaren 29an, berriz, Urgazik beste hitzaldi bat antolatu du leku eta ordu berean. Alejandro Altuna medikuak kirola eta medikuntzari buruz jardungo du. Urgazik hitzaldietara joatera animatzen ditu herritarrak.

■ Gipuzkoako 25. bolo txapelketa San Pedron

Larunbat honetan, hilak 23, Gipuzkoako Bolo Federazioak antolatuta, Gipuzkoako txapelketako zirkuituko bolo txapelketa jokatu da San Pedroko bolatokia arratsaldeko 5etatik aurrera. Gipuzkoako txapelketa, 6 bolo saioak osatzen dute eta hauetako bi Elgoibarren jokatu dira, bat larunbat honetan San Pedron eta bestea maiatzaren 6an San Migelko frontoian. Elgoibartik, San Migel auzoko talde bat arituko da, iaz Euskadiko bigarren eta Gipuzkoako txapeldun izan zena.

Nathalia Mellado:

"Nire ametsa goraino heltzea da"

Egun hauetan elgoibartar gazte honen ahotsa entzuteko aukera izan dugu. 18 urte baino ez ditu eta dagoeneko bere ametsa punta puntako abeslari izatea da. Abesti melodikoaren barruan sailkatzen du

bere burua. Zein abeslari miresten duen galdetu diogu eta berak Isabel Pantoja duela gogokoen esan digu. Galde-erantzun saio baten ostean, hara zer kontatu digun artista gazte honek.

- Noiz hasi zinen abestiaren munduan?

- Hiru edo lau urte nituela, abestea gustuko nuela konturatu nintzen. Gerora, hamar urte nituenean gutxi gora behera, Elgoibarko Tunan sartu nintzen, eta hor hasi nintzen bokalista bezala. Ondoren zentru ezberdinetakoek, Andaluzekoek, Extremeñoek... ikusi ninduten eta beraiekin kanta nezan eskatu zidaten.

- Nork bultzatu zintuen aurrera jarraitzeko?

- Ez dut inolako laguntzarik izan. Betidanik atsegin izan dut mundu hau eta nik nahi dudalako jarraitzen dut aurrera. Berez barruan daramadan sentimentu bat da.

- Zein izan zen zure lehendabiziko aktua-zioa?

- Lehenengo aktua-zioa Donostian izan zen, Konstituzioaren enparantzan. 12 urte nituen. Plaza jendez gainezka zegoen eta horrek asko inposetzen du. Nerbioak zirela eta, abestia ahaztuko zitzaidalara irudit



"Orain nire abestiekin zinta bat merkaturatu nahi dut"

zitzaidan. Esperientzia ona izan zen niretzako.

- Zein motako abestia lantzen duzu?

- Orain arte "Canción española" delakoan aritu naiz, baina momentu honetan "Canción melódica" lantzen nago. Lehenengoak kitarreo asko du, txalo asko, bigarrena, ostera, erromantikoagoa da. Guztiz ezberdinak dira eta nire ustez, jendeak bigarrenago hau du atseginago.

- Nor da zure idoloa?

- Nire ustez onena Isabel Pantoja da. Berak, beste inork ez bezala sentitzen du musika, eta honetaz aparte bere ahotsa oso berezia da.

- Zertan ari zara momentu honetan?

- Hobeto abestu ahal izateko teknikak ikasten nago, hiru urte daramatzat honetan. Inpostazioa deitzen dena irakasten didate, hau da, arnasa nola hartu eta soinu

hobeago bat lantzeko ahoskatu. Egia esan, asko zor diot irakasten didan pertsonari.

Gainera, orain zinta bat merkaturatu nahi dut. Orain arte nireak ez ziren abestiak erabili izan ditut, Pantojarenak, Rocio Juradorenak, Mari Fe De Trianarenak... baina oraingoan nireak izango dira. Abestiak Madrilen konposatu dizkidate, beraz, hara joan behar dut zinta grabatzera.

- Aurkeztu al zara inoiz txapelketa batera?

- Oraingoz ez. Txapelketa asko daude, baina ez datoz nere estiloarekin bat. Telebistara joatea ere nahi izan dut, baina ez dut lortu. Ez da batere erraza; kontaktuak edukitzea oso garrantzitsua da.

- Zein da zure ametsa?

- Goraino heltzea. Badakit oso zaila dela, baina ahaleginduko naiz, horretan nabil eta jarraitzeko asmoa dut.

- Zorte ona izan dezazula, beraz.

- Mila esker.

ISA ANSOLA

Zaharrek BERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 2. GEHIGARRIA



Hilaren 8tik zuzendaritza berria dute Zaharren Biltokian. Jakin dezagun zeintzu diren, printzipioz datozen bi urtetan, Biltokiko zuzendaritza osatuko duten gizon-emakumeak: Iñaki Insausti, presidentea; M.Luisa Garrido, presidente ordea; Juanito Gorostiza, idazkaria; Jose Perez, tesoreroa; Angel Parada, Enrike Eguren eta Anacleto Fernandez bokalak. Pedro Salinas eta Maria Mortalena dira aurreko zuzendaritzatik geratzen di-

ren bakarrak, hauek ere bokalak oraingoa.

Proiektua oraindik gauzatua ez badago ere, asmo berri asko dituzte. Besteak beste, minusbalidontzat zenbait irteera antolatu nahi dute, haiei egoitutako autobusekin, noski. Erretzaileek badute beren txokoa baina dirudienez ez da errespetatzen, horregatik zerbait egin nahi da; mementuz kartelak ipintzeari ekin diote. Eta maiatza aldera, ohi den bezala, txangoekin hasiko dira.

MOTZAK • MOTZAK • MOTZAK • MOTZAK

Jubilatuen Estatu mailako batzarra Bilbon

Maiatzaren 20an jubilatuen Estatu mailako Batzar Orokorra izango da Bilbon. Ahalik eta jendetza ugariena bildu nahi da; hori dela eta Elgoibarko Zaharren Biltokiak autobusa antolatu du. Bertara joan nahi duenak eman dezake, dagoneko, izena.

Karta jokuen eskualdeko txapelketa

Mus-a, tute-a eta beste zenbait karta jokuren eskualdeko txapelketa antolatu da. Herri mailan irabazle ateratzen diren lehengo biek, eskualdeko txapel-dunen aurka jokatuko dute. Parte hartu nahi dutenek, apirilaren 30a arte dute izena emateko epea Zaharren Biltokian.

Kafe-tertulia pentsioei buruz Eibarren

Apirilak 26an "Pentsioen etorkizuna eta Hirugarren Adinarekin jarraitu behar den Gizarte Politika" aztertuko da kafe-tertulia batean; arratsaldeko 5etan, Diputazioko Pentsionisten Eibarko egoitzan. Hizlarien artean Gipuzkoako Jubilatuei Elkartearen ordezkariek izango dira.

FERMIN RUIZ DE GAUNA

"Oin pelotiak jokalarixa dominatzen dau"

FERMIN RUIZ DE GAUNA. 70 urte ditu Elgoibartar honek, eta kontatzeko asko. Gaztetan geldi egon ezin diren horietako mutikoa izan zen. Futboleari hasi eta plazako frontoian pilotan jokatzeari ere ekin zion, eskuz eginiko pilotekin. Denborarekin, pilotari profesional izateko aukera suertatu zitzaion, umetako jolasa zenak diru piskat ere emango zion. Beranduxeago, "herrian zeozer egin behar" zutela eta, hainbat lagun bildu eta "Odol-Emaleen Elkarte" sortu zuten Elgoibarren.



- Umetan eskola baino pilota nahiago, ez?

- Juten ginan eskolara ere, eh! Baina bai, trapuz egindako pelotia hartu eta edozein lekutan jolasten genduan. Ormia zauan lekuan, ba hantxe, frontoian, arkupietan edo portala ere igual-igual zan. Futbolian ere jokatzeko naban, portero bezela, baina txikiegia nintzan eta laga egin bihar. Pelotiarri heldu nion eta 21 urtekin debutatu naban profesional bezela, Barakaldon.

- Eta irabazi.

- Bai, debutatu nabanian, solterotxia lagatakuan, baita ezkondu eta gero jokatu naban lehenengo partidua eta erretiratu nintzanekua ere. Hoiiek danak irabazi nitxun.



- Entrenamendu berezirik egiten al zenuten?

- Ez, nik ez naban entrenamendurik eitxen. Astirik ez nakan. Lan asko eitxen gendun eta amaitzian nekatuta egoten ginan, pelotarako gogoripe. Partidua hasi baino lehen berotu eta kitxo!

- Zer laga zenuen pilotan jokatzeko?

- Bueno, nik banaukan afiziua sasoi baten igerian ibiltzeko. Baina eskuak jata dana biguntzen ziazan eta kaltegarria zanez, laga egin bihar izan naban pelotan ibiltzeko.

- Zer pasatzen da pilotari baten burutik frontoian?

- Pelota jokuan buruan daukazun bakarria partidua irabaztia da. Galtzen dozunian amorru galanta hartu eta aguantatu egin bihar.

- Lehen jokalaria eta orain ikusle. Aldatu al da esku-pilota?

- Orain zarata asko dago pelotian,

bueltan, baina joko gitxi. Oraingo pelotia oso bizixa da, bote haundi-xa eitxen dabe. Pelotiak jokalarixa dominatzen dau, espektakulo gitxio ematen da. Gure epokan jokalarixak dominatzen zaban pelotia, eta hala izan bihar da neretzat. Lehengo pelotia hobia zan.

- Garai guztietako pilotaririk onena?

- Gallastegi.

- Eta zein dator fuerte gazteen artean?

- Beloki.

- Beste gai bati helduz, Odol-emaileen sortzaileetarikoa bat ere izan zinen.

- Bai, Arraten egon ginan "ariketa izpiritualak" egiten. Handik santuak etorri ginan, gure ustetan behintzat. Halaxe, zeozer egin bihar genduala eta, herrixa mobidu edo... "odol-emaileak" zeudela jakin gendun. Bost lagun bildu, soziuak bilatu eta Elgoibarko Odol-emaileen Elkarte sortu gendun, 1963 urtian bueltan.

- Bizi izan duzun garairik onena?

- Gaztetasuna. Sasoia zakaunian danak ziran onak, txarrik ez zaon orduan. Halere, txarretan txarrenak pasatu ditzugu guk, gerrira, gosia...

- Eta zertan okertu da gizartea?

- Libertadia hartu biharrian libertinjia daukela beixintzen jata neri.

“Pelotan jokatzeko frontoian, arkupietan edo portalian igual-igual zan”

Gurutze Gorria nagusien zerbitzura

Beharbada batek baino gehiagok Gurutze Gorria aipatzerakoan, berehala identifikatuko du talde hau istripu eta anbulatziarekin. Halere, badira pertsona hauek egiten dituzten beste hainbat ekintza ere. Eta horien artean, guk gaur ezagutarazi nahi duguna: zerbitzu soziala, edo hirugarren adinekoekin zein ezinduekin egiten duten lan paregabea.

Beste askoren artean, bi dira, nagusiki, Gurutze Gorriak gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak. Bata martxan dago, bestea berehala hastekotan dira.

Etkez-etxeko laguntza konplementarioa

Diputazioak eskaintzen duen etkez-etxeko laguntzaren osagarri bat da hau. Duela pare bat urte hasi ziren eta orain arte benetan erantzun ona izan du. Diputazioak printzipioz eskaintzen duena etxeko lanak egiteko laguntza da, bazkaria prestatu, gaisoak egunean hainbat ordutan zaindu... Gurutze Gorriak, batez ere, berbetalditxo bat eskaintzen die, bakardade kasu asko ematen baitira, pasiara bat amatera ateratzen dituzte...

Tele-asistentzia

Hil hau bukatu baino lehen hasi nahi da. Zertan datza? Donostiako zentralitatik eraman da dena. Etxean telefonoa duenari aplikazio berri bat gehitzen zaio. Honen bidez, hainbat datu memorizatzen dira: medikuaren izena, senitarteko bate-na... Pertsona horrek domina bat dauka, etxean sartu orduko jantzi behar duena. Honela, etxeko edozein gelatan dagoela ere, zerbait gertatuz gero, eta telefonora iristeko denbora edo ahalmunik ez badauka, domina zakatuz, auto-

matikoki telefonoa aktibatzen da eta Donostiako zentralitatekin kontaktuan jartzen. Telefonoa deskolgatu-ta ez egon arren, pertsona horrek zentralitatekin hitzegin dezake, eta gertatzen zaiona azaldu. Donostian berehala dakite zein den deitu duenaren historiala (gaisotasuna, ara-



Igongailurik ez dagoenean ezinduak kaleraino jeisten dituzte.

zoak, familiakoen berri). Mareo, erorketa edo bestelako gaitza bada deitzearen arrazoia, zentralita herriko Gurutze Gorriarekin jartzen da kontaktuan hauek anbulantzia bat bidali dezaten.

Tele-asistentziaren bidez, bakarrik sentitzen direnek norbaitekin hitzegiteko aukera dute. Medikamentu bat hartu behar duenari zentralitatik deitzen zaio hartzeko ordua dela gogora araziz. Urtebetetze egunean ere deitzen zaie. Bestalde, 24 ordutan ez bada domina zanpatu, zentralitatik automatikoki deitzen da, dena ondo dagoela ziurtatzeko.

Dagoenako sei eskaera jaso dira Elgoibartik eta beste sei Plazentziatik. Hauek doan atera dira Madrileko zentraletik herrietako batzordetara bidali den dirulaguntzari esker. Hemendik aurrera ere Udaletxe edo Diputazioen dirulaguntza jaso nahi da, benetako beharra dutenek etxean tele-asistentzia jartzeko aukera izan dezaten.

ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA KONPLEMENTARIOA

Besteak beste:

- Berbetalditxo bat eskaini.
- Pasiara bat amatera atera.

TELE-ASISTENTZIA

- Istripu eta antzeko kasuetan domina bat zanpatuz telefonoa automatikoki aktibatzen da eta Gurutze Gorriarekin hitzegin daiteke.
- Urtebetetze egunean zoriondu.
- Medikazioa hartzeko ordua gogoraerazi.
- ...

Nola egin testamentua

Aestamentua egitea ez da oso hedatua dagoen usadioa. Hala ere, gero eta gehiago dira honen garrantziaz jabetu direnak. Ordenamendu legalak hiru aukera eskaintzen ditu testamentua egiteko. Adituek, buruhauste, garestitze eta hankasartze gutxien suposatuko dituen formula aukeratzea aholkatzen dute.

Zein geratuko da gure etxebizitzarekin, gure aurrezkiekin, gure betebeharrak edo gure zorrekin, baleude? Testamentua egitea ez da, inundi inora, gauza erraza. Oinordekotza zuzenbidean aratuak datozen hainbat puntu ezagutu behar dira. Horregatik komenigarri da zuzenbideari buruzko guztiak ezagutzen dituen profesional batengana jotzea aholku bila. Notarioak, adibidez, bezeroari behar duen informazioa luzatuko dio.

Testamentuaren nondik norakoa bi zatitan bana daiteke:

1.- Testamentua "ekintza solemne" bat da. Honek esan nahi du testamentua legeak markatzen dituen pausuk jarraituz idatzi behar dela. Hiru testamentu mota daude, bakoitzak bere legeak izanik:



notarioaren aurrean irekitzen den testamentua, olografoa eta itxia. Olografoa eta itxian egilea hil eta gero, eskusartze judiziala behar da testamentuaren efektu osoa lortzeko. Honek, noski, gastu eta buruhausteak dakartza.

Olografoa, ordenatzaileak (testador) idazten du, testigu eta notarioaren beharrik gabe. Kontu handia izan behar da, beraz, askotan legea ez baita behar bezala ezagutzen eta guztia bertan behera gera daiteke eta. Zer esanik ez testamentua galduko balitz. Itxia ez da apenas erabiltzen gaur egun. Honen bidez, sekretu osoa lortu nahi da baina honek ere arazoak sor ditzake.

Ondorioz, notarioaren aurrean irekitzen den testamentua egitea komeni dela esan daiteke.

2.- Edukiari dagokionez ere bada zeresanik. Testamentua borondatezkoa den arren, badiu bere mugak. Ondarea ezin zaio edozeini u-tzi, lege betebeharrak minimo batzuek daude eta. Besteak beste, ezinbesteko oinordeko batzuek zehazten dituzte legeak, eta hoiak derrigorrez utzi behar zaie zerbait.

GEHIGARRI HONETAKO KOLABORATZAILEAK: Begoña Mugerza eta Amagoia Ruiz de Gauna.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, GOMEZ, OTALORA ETA RUIZ DK.ak

Honako aseguru etxeekin lan egiten dugu: Igualatorio Medico Quirurgico, Asisa, Capisa, Previa, Lagun Aro, Diputación Mediciatc eta partikularrak.

- ▶ Azterketa ginekologikoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- ▶ Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- ▶ Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- ▶ Antzutasuna
- Antisorkuntza
- ▶ Menopausiaren tratamendua

*Guzti hau
Eibarren bertan
urrutirago joan
gabe!!*

Urkizu Pasealekua, 11
(Orbeako dorrea lehenengo solairua)
☎ 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR

Aintzane Garate

Garate Jantzi dendakoa

- **Gehien erabiltzen duzun kolorea?**
- ▶ Klasikoak gustatzen zaizkit: urdina, zurixa, beltza, krudoak...
- **Eta zein ez zaizu gustatzen?**
- ▶ Horia, oso gutxi erabiltzen dut, baina ez daukat maniarik.
- **Mallak ala kanpanadun prakak?**
- ▶ Ez bata eta ez bestea baina aukeratzekotan nahiago ditut mallak.
- **“Aunque la mona se vista de seda mona se queda”?**
- ▶ Ez nago ados. Pertsona batek asko irabaz dezake jantzita daraman arroparen arabera.
- **Ezkontza baterako arropa berezia erosten al duzu?**
- ▶ Lehen disfrazatu egiten ginen, zerbait ezberdina erosi eta gero armairuan gelditzen zen. Gaur egun, gero ere erabiliko ditugun arropak erosten ditugu.
- **Zein konplementu duzu gustukoena?**
- ▶ Painelu eta zinturoiek asko laguntzen dute.
- **Sekula jantziko ez zenukeen arroparik?**
- ▶ Emakumezkoen arropa klasikoa, “traje txaketa” bat, adibidez.
- **Garestia=kalitatea?**
- ▶ Badu zerikusirik baina ez beti. Markak eta dendaren prestigioak ere zeresan handia dute.
- **Marka bat?**
- ▶ Levi's-a. Bakeroetan klasiko bat da eta oso gustukoa, gainera.
- **Moda jarraitu ala egokitu?**
- ▶ Dударik gabe, egokitu. Nere estiloa daukat eta ez dot egun batetik bestera aldatzen modaren arabera.
- **Zein urtaroko arropa atsegin duzu batipat?**
- ▶ Udazkenekoa, beharbada kolore suabeenak erabiltzen direlako.
- **Noiz izan da barre egin duzun azken aldia?**
- ▶ Zorionez egunero egiten dot barre edozer gauzogatik.
- **Superstiziorik?**
- ▶ Ez. Garai batean behin edo behin zortea eman zidan arropa bat jazteko ohitura neukan egun berezietan, orain ez.
- **Erakutsi ala sujeritu?**
- ▶ Sujeritzea askoz politagoa dela iruditzen zait.




bandaren kontzertua

DOINUA:

Mutil koskor bat

Igande hontan eguerdi-aldean hilabetero bezala bandan gaudenok saiako gera betetzen gure papela musika ona entzutekotan denbora pasa bestela espero dugu ikastolara agertuko zaretela gure ustetan ederra bait da prestatu dugun kartela.

Kontzerturako martxa batekin izango dugu hasera “Malando”rekin joango gera Sudamerica aldera. Albinoniren goxotasunaz emozionatuko gera Beethovenekin gozatzeko ere eukiko dugu aukera indarra eta sentimentua Egmont-en biak batera.



AITZOL ARRIOLA

B
E
R
R
E
T
A
I
N

Ametza

KAFETEGIA

San Inazio, 2 ☎ 74 27 22 ELGOIBAR



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 beheak
Tel-Fax: 74 04 89

Udalak intsumisoen aldeko mozioa onartu zuen ez ohizko plenuan

Joan den hilaren 18an eginda-ko ez ohizko plenuan, PNV, EA eta HBren aldeko botuekin eta PSOeko bi zinegotzien aurkako botuekin, Talde Antimilitaristak aurkeztutako mozioa onartu zen. Mozioari baietza eman baino lehen, ordea, eztabaida beroa sortu zen Udal Aretoan, Talde Antimilitaristako kideak, intsumiso epaituen guraso eta PNVko zinegotzien artean. EA eta HB alderdiek mozioa onartuko zutela adierazi zuten hasera haseratik, eta PSOeko zinegotziek, objezioaren legea eta Ordezko Zerbitzuaren aldekoak zirela azaldu zuten.

PNV alderdiaren botuen kolorean zegoen kakoa. Jose Inazio Elkorro-Iribe alkateak hitz egin zuen eta iazko martxoko mozioan onartutako puntu berdinekin bat zetorrela bere alderdia adierazi zuen. PNVko Guillermo Garatek, bere aldetik, kontsentsua bilatzeko beharra aipatu zuen eta Urnietako Udalak onartutako mozio bera onartzea proposatu zion Talde Antimilitaristari. Hauek Urnietako mozioarekin bat zetozela baina Udaletxearen konpromezu eta inplikazio sendoagoa nahi zutela adierazi zuten elgoibartarren epaiketak gainean zeudela gogoraraziz. PNVko zinegotziek Talde Antimili-

taristak aurkeztutako mozioa puntuz puntu botatzeari ekin zion. Lehen sei puntuetatik bostgarrena bakarrik onartzen zutela ikusita, eta bide horretatik jarraituz 93ko mozioan onartutako zenbait puntu baliogabetzeko arriskua zegoela ikusita, aretoan bilduriko guraso, intsumiso, HB eta EAKo zinegotzien eta PNVko zinegotzien artean eztabaida gogorra sortu zen. Sortutako giroa ikusita Alkateak plenua geratu eta ordubetez, Talde Antimilitaristako kideekin bilera egitea proposatu zuen. Ordubete beranduago PNVren onespenerekin eta PSOEn aurkako

botuekin Antimilitaristek aurkeztutako 9 puntuetatik 7 onartu zituen plenuak. Era berean, Juan Mari Eguren PNVko zinegotzia Udaletxeko ordezkarri gisa epaiketara joango zela erabaki zuten.

Talde Antimilitaristako kideak pozik daudela hartutako erabakiarekin azaldu dute. Gogoratu, iaz elgoibartar bat epaitu zutela, aurtien dagoeneko hiru epaitu dituztela eta datozen hilabeteotan beste hiru intsumiso epaituko dituztela. Epaiketaren zain daude, hain zuzen, Alejo Rolo, Luziano Arregi eta Esteban Gabiola intsumisoak.



■ ■ Juan Mari Eguren Udaletxeko ordezkarri gisa, Iban Esnaola eta Aitor Esnaola epaituak eta Jorge Hernando zinegotzia, Auzitegian.

UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



▲ **IZENA:** Lorea Vila

▲ **ADINA:** 32 urte.

▲ **LANPOSTUA:** Ongizate saileko gizarte laguntzailea.

▲ **FUNTZIOA:** Batetik, informazio, balorazio eta aholkularitza programa eramaten du baserrietan eta Urasandi auzoan. Bestetik, familia eta elkarbizitza programa herri mailan: emakumeak, larrialdi soziala eta zaharren egoitza...

▲ **NOIZTIK LANPOSTUAN:**

1988tik.

▲ **LANAREN ALDE ONA:** Egoera txarrean bizi direnei laguntzeko aukera ematen du. Zu baino gaizkiago daudenak ikustek bizitza gehiago apreziatzen, baloratzen, erakusten dizu.

▲ **ALDE TXARRA:** Oso lan gogorra da. Kasu benetan fuertek iristen dira askotan hona.

Olaso baserriaren hondakinak

- Olosotarren lehen dorretxea monastegiaren ondoan kokatua zegoen, Ezenarro apaiz ikertzaile elgoibartarraren arabera.
- Diego de Abendaño eta Ganboak etxea berritu zuen 1588tik 1592ra bitartean. Gela zabalez hornitu zuen eta teilatuari lau isurialde eman zizkion, dorretxe bat bezala antolatuz.
- 1990 urtean bota zuten eta parke polit bat egin dute hura kokatzen zen tokian, ustezko dorretxearen harlagintzako bi orma zati kontserbatuz. Hauetan arkudun bi ate eta dinteldun leiho bat irekitzen dira.
- Iparralderuntz kokatzen den arkua kanpanela da. Dobelak eta atezangoak kararizkoak ditu, harlanduak irregularrak izanik. Ataburua harlauza bakarrak osatzen du.
- Iparralderuntz, baita ere, leiho dinteldun bat, zertxobait txaranbeldua, ikus daiteke kanpotik ixten delarik. Leiho honen aurrean, zolutik altxatua, basamentu baten bidez, hormigoiz hartua, eskuzko errota borobil bat dago.
- Ekialderuntz dagoen arkua, berriz, erdi puntuko beheratua da. Honen dobelak ere kararizkoak dira.
- Arku honen azpian, ate ohiaren ohol horizontal bat dago eta hemen, hiltzez josita, egurrezko gurutzetxo bat. Gurtzeak bere esanahi kristau erlijioso sakonetik at, badu zentzu magiko bat ere zenbaitzuentzat: ekaitz, gaisotasun eta antzeko gaitzetatik babes ematearena, alegia.
- Olosoko multzo historiko-artistikoan ondo datorkie, kanpoko orman, muino hartan egon ziren, eta dauden, aztarna historiko-artistikoak adieraztea kartel txukun baten bidez. Horrela, herritarrok hobeto balora eta maite dezagun gure ondarea.
- Ene iritziz, elementu hauek mantentzea txalogarria da, eta eskatuko nieke agintariei jokabide honekin jarrai dezaten, horrela beste zenbait elementu historiko-artistiko berreskuratu eta kontserbatu izango dira eta.

PELLO ARRIETA



Juan Luis Ansola

Txistularia (1963-1982)



ARAGO

- Juan Luis Ansola Kareaga, Jose Antonioren semea eta Ansolatarren belaunaldiko zazpigarrena da.
- Txanbolinen 200 urte inguruko leinuak belaunaldi gazte honekin izan zuen jarraipena. Laukote gaztea hiru anaia eta lehengusu batek osatzen zuen: Juan Luis, Joxe eta Aitor, hiruak Antonio Ansolaren semeak, eta Xabier, Blasen semea.
- Irakasle ezin hobek izan zituzten. Txistua osaba Felixek irakasten zien eta musika, aitita Joxek.
- 1975an, Barinagako San Pedrotan, jo zuten lehen aldiz. Zortzi eresi jo zituzten, hutsik batere egin gabe.
- 1979an, Bilboko "Sociedad Bolivariana" k egindako lehen ekitaldian Boliviako agintarien aurrean jo zuten arrakasta handiz. Uztailaren 7an, Elias Lasuen apaizaren omenaldian ere izugarrizko arrakasta izan zuten.
- 1982. urteko martxoaren 14an auto istripuz hil zen Juan Luis. Heriotza honek Ansolatarren belaunaldia eten zuen.

MITZ BIZKAR ARDOAK
 ARDO ETA PATTARRA
 PATATA SALMENTA
Etixerainoko banaketa
 Errosario 18
 ☎ 74 02 37

IDARRAGA KAFEAK
Eguneroko errealdiak
 San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

OINETAKOAK
 San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

MOTZAK

Tiro eta mus txapelketak

La Union ehiza eta arrantza elkarteak hiru tiro saio antolatu ditu bazkideentzat. Lehen hilaren 30ean, bigarrena maiatzaren 7an eta azkena 14an izango da. Egun bakoitzean sariak banatuko dira irabazleen artean eta 14an, sailkapen orokorreko sari banaketa izango da. Izena emateagatik 1000 pezeta ordaindu beharko dira. Saioak arratsaldeko 3etan hasiko dira eta goizeko 11etatik 1era entrenamendua izango da. Halaber, *La Union* elkarteak mus txapelketa antolatu du. Datorren 28an hasiko da txapelketa gaueko 9etan. Bikote bakoitzak 1000 pezeta ordaindu beharko ditu.

458 haurrek egingo dute korrika I. Haur Krosean

San Bartolome Ikastolak I. Haur Krose antolatu du Elgoibarko Udalaren laguntzaz. Lasterketa igande honetan, hilak 24, burutuko da. Lasterketan OHoko 1. mailatik 8era bitarteko herriko haur guztiek har dezakete parte. Txikienek San Bartolome eta Errosario kaleak zeharkatuko dituzte saltaka eta 5. mailatik aurrerakoek Plazatik Maalaraino eta berriro Plazarainoko bidea egingo dute. Lehen lasterketa 12etan hasiko da eta 1. eta 2. mailako haurrentzat izango da. Bigarren lasterketa 12,15etakoak izango da eta 3. eta 4. mailako haurrek korrituko dute. Ondoren, 12,30etan, 5. eta 6. mailako neska mutilak arituko dira eta azkenik, 12,45etan, 7. eta 8. mailako ikasleak. Dagoeneko 458 haurrek eman dute izena.



Iñaki Konde:

"Hawaiko ironman-a egin nahi dut 45 urterekin"


■ **Zenbat urte kirolean, Iñaki?** - Serixo, azken hogeit hamar urteak. 19 edo 20 urterekin juergan pentsatzen dozu kirolean baino gehiago.

■ **Duathloia, zure kirola al da?** - Nere kirola mendia da. Duathloiak eta triathloiak gorputz guztia lantzen laguntzen dit, indarra eta fonda. Oso ondo dator mendirako. Orain gustura nago duathloiak. Kirolean dibertsifikazioa ona da, lesio gutxiago eukitzen dira.

■ **Udako triathloiaz gain, negukoa egingo al duzu?** - Jun zan larunbatian triathloi zuri bat egin nuan lehen aldiz. Ez nekien eskia-tzen baina gauza da aproba egitea. Kirol ezberdinak probatzeak motibatu egingo zaitu.

■ **Zein da zure kirol filosofia?** - 43 urte dauzkat eta kirola ez dut planteatzen markak egin eta konpetentzia modura. Kirola bizitzeko forma bezela, hobby-a.

■ **Lasterketatan zein izaten da zure asmoa?** - Duathloian hasi nintzanian aztertu nindun medikuak zera esan zian: "aurten beteranuen Euskadiko txapelduna atera dezakezu". Horrek pikatu egin zian eta hurrengo urtian saiatu nintzan eta bigarrena atera naban. Frustrata sentitxu nintzan. Horregatik ni ere banabil konpetizioan baina beste maila batian.



■ **Noiz arte kirola egingo?** - Nere asmua 60 urte arte jarraitzea da. Helburua aritzea da, poliki poliki ahalik eta gehien.

■ **Zein kirol doakizu hobetoen?** - Ondoan korrika nabil eta okerren igerixan. Gehixen gustatzen zaidana, berriz, igerixa da eta gitxien korrika.

■ **Paradojikoak, ez?** - Bai eta gainera, igerixa kriston deskubrimetua izan zan. Hasi nintzan eta orain egunero juten naiz piszinara.

■ **Iron-man bat prestatzen ari zara, ez?** - Lanzarotekoak. Oso gogorra da. Hawaikoan 9 ordu egingo duenak Lanzaroten 10 terdi egingo ditu.

■ **Oso gogorra, ez?** - Bai, bizikletan 40ko abiadura eramaten da batzabeste. Urteak ere kontutan hartu behar dira. Nik Hawaiko egin nahi det 45 urterekin. Hemen denbora batzuk egin behar dira sailkatzeko.

■ **Elgoibarko duathloian parte hartuko duzu?** - Ez dakit, antolakuntzan ere banabil eta. Lelengo, lana eta gero, astirik badao, korrika.

- Adina: 43
- Duathloiaz gain? Mendia, baina kirol guztiak probatu nahi nituzke.
- Bizitza kirolik gabe? Oso gaizki pasatuko nuke.
- Miresten duzun kirolari bat? Puntakoen atzetik ibiltzen direnak



Murumendiak
ELGOIBAR

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean
saiatzen gara*

*Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70

MAHAINGURUA

Kirola eta profesionaltasuna

PARTAIDEAK

- ➔ Alberto Iñurrategi (mendizalea)
- ➔ Andoni Imaz (futbolaria)
- ➔ Diego Garcia (atleta)
- ➔ Aitor Elkoro (pilotaria)

APIRILAK 26 ASTEARTEA
IMHko areto nagusian
arratsaldeko 7etan

MODERATZAILEA

- ➔ Arritxu Iribar

... eta ondoren

1993ko KIROLARI ONENAREN

SARI BANAKETA

eta ARTEGIk emandako SONY BIDEOAREN ZOZKETA

ANTOLATZAILEAK: elgoi **BARREN** astekaria eta **ELGOIBARKO UDALEKO KIROL ZERBITZUA**

MOTZAK

93ko Kirolari onena eta mahaingurua

BARRENen eta Udal kirol Zerbitzuaren eskutik, kirola eta profesionaltasunari buruzko mahaingurua burutuko da hil honen 26an, Erreminta Makinaren Institutuko areto nagusian, arratsaldeko 7etatik aurrera. Partaideak Alberto Iñurrategi, Andoni Imaz, Diego Garcia eta Aitor Elkoro izango dira. Moderatzaile lanetan Arritxu Iribar kirol kazetaria arituko da. Segidan, otsailean eta martxoan zehar BARRENen agertutako 1993ko kirolari onenaren lehiaketaren sari banaketa egingo da. BARRENeko irakurleengandik botu gehien jaso duen kirolariaren izena ez da sari banaketako unera arte ezagutuko. Ekitaldian, Artegik emandako Sony bideo baten zozketa egingo da lehiaketan parte hartu duten irakurle guztien artean.

Gorka Garate, Euskadiko Judo txapelketan

Gorka Garatek, Ibai gimnasioko ikasleak, 15 urtetik beherako Euskadiko txapelketan parte hartuko du Gipuzkoako taldearekin, 50 kiloko mailan. Txapelketa datorren igandean, hilak 24, burutuko da Gasteizen. Gogoratu, 13 urteko judoka honek domina lortu zuela Gipuzkoako txapelketan eta Euskadiko txapelketan domina lortzeko aukera izan dezakeela.

Gipuzkoako herri arteko pilota txapelketa jokatzeko ari da



■ ■ Azkoitiarren aurka jokatu dute elgoibartarrek larunbat honetan.

Gipuzkoako Pilota Federakuntzak, Kutzaren babesarekin, herri arteko Gipuzkoako txapelketa antolatu du. Dagoeneko hasi da txapelketa eta Zizurkilen eta Elgoibarren jokatu dira lehen bueltako partiduak. Joan den larunbatean elgoibartarrek zizurkildarren aurka jokatu zuten bigarren aldiz. Infantil mailan Karmel-Balzola bikoteak 18 eta 5eko emaitzaz irabazi zuten. Jubeniletan Orbea-Lazarobaster bikoteak 8 tantu falta zitzaizela galdu zuten partidua eta, nagusien mailan, Ansola eta Alzibarrek

erraz irabazi zuten partidua, 22 eta 10. Elgoibartarrek Zizurkilko pilotariak eliminatu eta gero, Azkoitiarren aurka jokatu dute larunbat honetan, hilak 23, arratsaldeko 5etan Ikastolako frontoian. Galtzen duen herria txapelketaz kanpo geratuko da eta sailkatzea lortzen duenak, txapelketan jarraitu ahal izango du. Txapelketa uztail aldera bukatuko da eta ondoren probintzien arteko fasea hasiko da. Kutxak 350.000 pezetako saria emango du Gipuzkoako lehenarentzat, eta bigarren, hirugarren eta laugarren sailkatuek ere izango dute saririk.

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 23

- 10,00: S. D. Eibar - Tolosa (Kadeteak)
- 12,15: C. D. Elgoibar - S. Tomas Lizeoa (Jubenilak)
- 17,00: Haundi - Hernani
- 18,45: Eibartarrak - Urretxu (Neskak)

Igandea 24

- 09,00: S. D. Eibar - Urki (1. jubenilak)
- 10,45: C. D. Elgoibar - S. D. Eibar (Infantilak)
- 12,15: C. D. Elgoibar - Aloñamendi (Kadeteak)

TXIRRINDULARITZA Industrialdean Larunbata 23

- 16,30: Txirrindularitza Eskola proba.

PILOTA Ikastolan Larunbata 23

- 17,00: Elgoibar - Azkoitia (Herri arteko txapelketa)

EMAITZAK

ESKUBALOIA

- Zarautz 12 - Elgoibar 16 (Kadeteak)
- Leizaran 21 - Elgoibar 28 (Jubenilak)
- Elgoibar 13 - Jauja 16 (Neskak)

FUTBOLA

- Haundi 2 - Sodupe 2
- Bergara 2 - Elgoibar 2 (Kadeteak)
- Elgoibar 0 - Alde Zaharra 1 (2. errejionala)
- Irundarra 0 - Elgoibar 5 (Jubenilak)
- Zarautz 1 - Elgoibar 2 (Infantilak)

Auzolandegiak gazteentzat

Uda sasoirako hainbat ekintza antolatzen dira, Euskal herrian ezezik baita mundu mailan ere. Oraingoan, auzolandegien ingurukoak azalduko ditugu, gazteentzat sortu den aukera berria. Eusko Jaurlaritzak antolatua, 15 urtetik hasi eta 30 urtera bitartean dauden gazteentzat luzatzen da honako programa hau.



Auzolandegiek badute udalekuekiko ezberdintasunik. Haietan, hamabostaldi majo bat pasatzeaz bat, lan ere egin behar izaten dute, udalekuetan ez bezala. Nazioarte mailan, Estatu Batuetan, Polonian, Holandan, Frantzian, Alemanian edo beste zenbait tokitan ere omen daude. Bakoitzean arlo ezberdin bat lantzen da, hala nola, arkeologia, ekologia, irriari errealizazioa edota etnologia.

Estatu mailan ere bada non aukeraturik: Kataluinian, Madrilen, Galizian edo Murzian, besteak beste. Eta Euskal Herrian bertan badira zenbait toki lau probintzietan banatuak.

Bidaia norberak ordaindu behar du. Egonaldiari dagokionez, hau da jan eta lo egitearen truke, 8.000 pta ordaindu behar da, batzaz beste. Kopuru hau igo egin daiteke atzerriko auzolandegietan. Informazioa eta izen ematea Kultura Lurralde

Ordezkaritzan egin daiteke, Andia kalean, 11-1 zenbakian, Donostian. Epea apirilaren 25ean irekiko da Nazioarteko auzolandegietara joateko, maiatzaren 2an Estatukoetara eta maiatzaren 11an Euskal Herriari dagokionean. Gehiago jakin nahi duenak 42 00 48 zenbakira dei dezake.

Bestalde, gazteen udalekuetarako izen ematea Elgoibarko Kultur Etxean egin daiteke.



2.000. BAZKIDEA

MORKAIKO M.E.

eta **ASTIGARRAGA** Kirolak, **IRIONDO** Kirolak, **MUXI** Kirolak, **UZURI** optika eta **IKUS** optikaren arteko akordioa.

Bazkideak %10eko DESKONTUA mendirako materialetan

Egin zaitetz bazkide eta ekarri azpiko txartela MORKAIKOr. Errosario 17. ☎ 74 02 97



IZEN -ABIZENAK

ZUZENBIDEA **TEL.**

JAIOTEGUNA

KUOTA: Haurra 500 pta.
 Nagusia 1.000 pta

BEHARREZKOA!

BANKUA **KONTU ZENBAKIA**

Ganbara taldea Mekanikako garbaran

Hil honen 12an Ganbara taldea entzuteko parada izan zuten Lanbide Heziketako zenbait ikaslek. Guk ere aukera hau galdu nahi ez eta euskal folk talde honetako partaide batekin elkarrizketatxo bat egin nahi izan dugu. Maialen, taldeko abeslaria, izan da gure grina asetu duena.

.- Zenbat denbora daramazue folk musika egiten?

- Hamar urte inguru, gutxi gora behera.

.- Nola sortu zen taldea?

- Lagun talde bat ginen eta musika gustuko genuenez, talde bat osatzea erabaki genuen. Hone-lahi hasi zen gaur egungo Ganbara.

.- Musikatik bizi zarete ala hobby bezala hartzen duzue?

- Ez, ez, hobby bat da guretzat. Denok ditugu beste zeregin batzuk.

.- Euskal Herritik kanpo aktuatzen al duzue?

- Bai, Belgika, Italia, Frantzia eta Estatuko hainbat lekutan ere jo izan dugu. Urtean behin irteten gara kanpora.

.- Taldea sortu zenetik aldakunt-



■ ■ Ganbara taldea Mekanikakan emandako saioan.

zarik izan al da?

- Bai. Ni (Maialen abeslaria) duela lau urte inguru sartu nintzen aurreko abeslariaren ordean. Hori partaideei dagokionez. Musika aldetik, berriz, eboluzionatzen joan da, gauza guztiak bezala.

.- Ez al duzue inoiz pentsatu beste hizkuntza batean abestea?

- Erdaraz edo beste hizkuntza batean abestuko bagenu ez genuke euskal musika egingo.

.- Zuen kanten letra gehienak beste batzuek egiten dizkizue. Zergatik?

- Bai, egia da. Nik egin ditut batzuk baina ezin daitezke konpa-

ratu Joxerra Garzia, Xabier Lete eta horrelako idazleek egin dizkigutenekin. Letra batzuk iparralde-tik bidaltzen dizkigute.

.- Beste diskorik ateratzeko asmorik?

- Bost diska kalean dira jada eta irailan estudioetan sartuko gara beste bat ateratzeko. Negurako kaleratuko dela uste dugu.

.- Eta... ganbara aldetik zer moduz zabilzate?

- Zuek ikusi duzue, zuentzat atzo zen astelehena, guretzat gaur. Aste Santua eta gero... badakizue.

LHIKO IKASLEAK



Preserbatibo makinak ikasleentzat

Jarri dituzte azkenean. Bazen garaia. Hilabete asko pasa dira agindu zigutenetik eta hitza bete dutenean, gaitz erdi edo erdi gaitz. Zentroan horrenbeste astazakil dabilela oharturik bazegoen premia, bai, baina orain inor ez da ausartzen lehena izatera. Bagenuen susmoa, izan ere jendeak makina erotikoa bailitzan hartzen du eta, betikoa, hainbeste erregutu ondoren, ezertarako ere ez. Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau. Horixe geratatu da oraingoan, edo jendeak izkutuan erosten ote ditu pekatua delakoan?

Etxebizitzak

PISU BAT ALOKATUKO nuke Elgoibarren.

☎ 74 30 25 / 74 34 49

Amaia

PISU BAT DAUKAT ALOKATZEKO San Roken.

☎ 74 00 37

BUHARDILA BAT ALOKATZEA nahi dut.

Berdin zait Elgoibar, Mendaro ala Altzolan izan.

☎ 19 29 31

ETXE BAT EROSIko nuke DEBAn. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gauetz 19,30etatik aurrera.

☎ 74 04 59

Lana

KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut euskeraz eta erderaz. OHO edo BUPen.

☎ 74 28 53 Alazne

Aizu etxeokandre!, PERFUMERIA APAINKETA ETA KOSMETIKAN ari den frantziar multinazional batek EMAKUMEZKOAK BEHAR DITU. Salmenta zuzena. Diru etorri oso ona. Muestrario bikaina publizitatez lagundua. Aukera ederra zuretzat. Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera.

☎ (948) 51 05 06

31 urteko neska bat naiz eta etxeok lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest nago.

☎ 17 17 40

EDOZEIN TESTU moeta ORDENAGAILUZ pasatzen da. Grafikoak ezartzeko aukera. Deitzeko orduak: 14:00-16:00 eta 20:00-22:00

☎ 74 22 77 Iratxe

ENPRESARIALETAN DIPLOMATUAK, klase partikularrak ematen ditu.

☎ 74 39 89 Mari Carmen

Salerosketak

EGURREZKO SEHASKA zuri bat saltzen da egoera eta prezio onean Ermuaran bide 9 - 1 ezk.

GARAGE BAT saltzen da pista beltzean. Prezio egokia

☎ 74 08 79 Julian

GARAJE BAT ALOKATZEN da, San Roke Sean. Marraduna.

☎ 74 08 05

San Roke auzoan TERRENOAK SALGAI ditut.

☎ 74 39 89 Rufina

Ford Escort gorria saltzen dut. SS 0883 AJ.

☎ 74 15 24

"Catusa" 4,20m.tako karabana bat salgai dut.. Ondo zainduta.

☎ 74 12 95 Pello

Lehenengo jaunartzeko HABITO BAT SALTZEKO EDO LAGATZEKO daukat.

☎ 74 27 66 (Tere)

FIESTA XR2-i SALGAI SS-AG. 40.000 km. Gutxi ibilia. Extra guztiak. Prezio egokia.

☎ 74 33 51

Bestelakoak

Bigarren eskuko FRIGORIFIKO BAT SALDU EDO EMATEN DUT. Deitu 10etatik-12etara

☎ ,74 14 63 Nekane

KARTERA GALDU NUEN larunbatean hiru giltz zituela barruan.

☎ 74 20 44Mila

BETAURREKOAK GALDU NITUEN hilaren 18an. Doratuak eta exagono formadunak dira.

☎ 74 11 95

URREZKO BELARRITAKO BAT GALDU nuen duela 20 bat egun Parrokiatik Pedro Muguruza bitartean. Norbaitek topatu badu, deitu mesedez:

☎ 74 09 53

Angelita Lizundia

URREZKO GURUTZEA ETA FERRA (herradura) bat GALDU ditut. Norbaitek aurkitu baditu mesedez deitu:

☎ 74 04 51 Iratxe

Joan zen hilabetean kremaieradun karpeta beltz bat galdu zitzaidan Maalako parkean. Barruko kuadernoetan izena jartzen zuen. Norbaitek topatu badu, mesedez deitu:

☎ 74 00 16 Txomin

Karitasek ERROPAK GORDETZEKO ARMAIRU BAT BAT BEHAR du.

☎ 74 15 09 / 74 12 57

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak.....461111

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak..740385

D.Y.A (anbulantzia) ..464622

Gurutze Gorria.....743864

Mendaroko Ospitala.756264

Drogomenpekotasun Z..741008

Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442

PESA (Eibar).....112131

Taxi Geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366

Kirol Zerbitzua742158

Kultura Zerbitzua.....742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua...743736

Udaletxea741050

Udalzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI.....741196

Kontsumo Bulegoa ...743088

Liburutegia743525

Musika Eskola742145

Mintxeta744315

Polikiroldegia741361

Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola74 44 41

L.H.I.....74 44 80

Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12

El Diario Vasco74 40 73

El Mundo11 85 05

74 22 67

El Correo Español...74 10 82

Egin.....11 84 21

Deia74 11 57

Triki **BARREN**eko DENBORAPASEN erantzunak:

1. Pertsonaia: Mari Jose, gozotokikoa.
2. Galdera: Zer egingo zenuke alkate bazina?
3. Asmakizunak: Haizea, izarrak eta orratza.
4. Marrubia 1 eta gereziak 3.

ASTEAN ZEHAR

22 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Akira" (Japonia) K. Otomo.
Marrazki bizidunak
✓ Udaletxeko Biltzar Aretuan
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an.

23 LARUNBATA

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

Gaia: Programazio berria
✓ Kultur etxean

12,00 I. HAUR KROSA

✓ Plaza handian
Antolatzailea: Ikastola.

16,00 PRESOEN ALDEKO
JAIALDIRA AUTOBUSA

✓ Irteera Plazan
Antolatzailea: Senideak.

17,00 GIPUZKOAKO 25. BOLO
TXAPELKETA

✓ San Pedroko bolatokian

21,30 SAGARDOTEGI AFARIA

Prezioa: 2000 pta.
✓ Kimetz elkarteak
Antolatzailea: Herri Batasuna.

22,00 LARTAUN ABESBATZA

✓ San Bartolome parrokiak.
Zuzendaria: Agustin Mendizabal.

24 IGANDEA

8,30 GATZAGA-URKIOLA
TRABESIA

✓ Irteera Plazatik
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

10,30 BANDAREN KALEJIRA

12,30 BANDAREN KONZERTUA

✓ Ikastolan
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro

19,30-22,15 ZINEA

"Akira" (Japonia)

25 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Akira" (Japonia)
Marrazki bizidunak

26 ASTEARTEA

19,00 MAHAINGURUA

Gaia: Kirola eta profesionaltasuna
Partaideak: Alberto Iñurrategi,
Andoni imaz, Diego Garcia eta
Aitor Elkoro.
Moderatzailea Arritxu Iribar.
Ondoren 93ko KIROLARI
ONENAREN SARI BANAKETA
✓ IMHko areto nagusian
Antolatzailea: BARREN eta Udal
Kirol Zerbitzua

27 ASTEAZKENA

18,30 GURASOEN TOPAKETAK

OHOko 3., 4. eta 5. mailako
gurasoentzat
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Drogomenpekotasun
prebentzio zerbitzua

20,00 HITZALDIA ETA
DIAPOSITIBA EMANALDIA

Hizlaria: Dina Bilbao
Gaia: Emakumea eta Kirola
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Urgazi Trathloi taldea.

28 OSTEGUNA

16,00 RUPER ORDORIKAREN
KANTALDIA

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Debabe Euskaltegia

19,00 BATXILERGO BERRIEI
BURUZ BILERA INFORMATIBOA

BBB eta REMeko 2. mailako
ikasleen gurasoei zuzendua.
✓ Lanbide Heziketa Institutuan.

19,30 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Izenburua: "Bidaia ezezagun bat"
Egilea: Luis I. Gonzalez
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

21,00 MUS TXAPELKETA

Prezioa: 1.000 ppta bikotea.
✓ La Union elkarteak.

29 OSTIRALA

20,00 HITZALDIA

Hizlaria: Alejandro Altuna
Gaia: Kirola eta Medikuntza
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Urgazi Trithloi taldea

22,15 ZINEA

"Blanco Humano"
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

txandak

FARMAZIAK:

23, larunbata: Bidasolo
24, igandea: Bidasolo
25, astelehena: Yudego
26, astearte: Yudegol
27, asteazkena: Yudego
28, osteguna: Yudego
29, ostirala: Ormazabal

OKINDEGIA:

24, igandea:
BOUTIQUE DEL PAN

ZINEA


AKIRA

Administrazioak 80 milioi zor dizkio "Bermejo Sanitarios" izeneko enpresaren jabeari. Bide burokratikoetatik dirua eskuratzea ezinezkoa zaionez, bere koñatu Marianok Osasun Kulturako idazkari ordearengana zuzenean jotzea gomendatzen dio. Idazkari ordeak gartzela batera bisita egingo duela iragarrita dauka eta enpresa gizona bertara joango da idazkari ordearekin hitz egiteko asmoz. Gartzelan sekulako zoroaldia piztuko da.

ELGOIBAR EZAGUTZEKO

GILTZA

Datorren astetik
SUPER LEHIAKETA



Alfonso

ALTZARIAK

Santa Ana, 4-6. Tel. 74 12 34 - ELGOIBAR